

Irungo  
euskarazko  
hamabostekaria

# Irunero

346

Apirilak 1, 2019

**2** Irun Atzo Irun Gaur

**3** Berri laburrak

**4-5** Krea Bidasoa

**6** Ainara Maia

**7** Emakume saharaien egoera

**8** Kirolak: Miliak Osasunaren Alde

**9** Kirolak: Javier Garridori elkarrizketa

**11** Haurren leihoa / Denborapasak

**12** Euskaraz, Irunen barrena / Gazteen lanak

**13** Beti Gazte: Ana Luna artista

**14** Gazte Informazioa

**15** Agenda



Fernando  
Vergara  
argazkilaria

Letxumorro hiribidea 100,2º  
20305 Irun  
943 840 113 - 647 930 484

[www.fotogover.com](http://www.fotogover.com)  
[www.fotogoverbodas.com](http://www.fotogoverbodas.com)  
[info@fotogover.com](mailto:info@fotogover.com)



## Zer gertatu zen Irunen orain dela 100 urte?

Apirilaren 13an argitaratutako "El Bidasoa" aldizkari astekariaren zenbakian Bidasoa eskualdeko azken albiste eta nobedadeak biltzen dira. Lau orrialdetan bost zutabetara maketatutako aldizkariaren garai hartako biztanleen eguneroko bizitzarekin loturiko gai ugari topatu daitezke.

"Mairus" izenordearekin sinaturiko artikulua batean Espainiako egoera politiko eta sozialaren analisi bat egiten da aldizkariaren zenbaki berri honi hasiera emateko. "Anotaciones de un chismoso" atalean, berriz, lan jardunaldia 8 ordura murrizteak irundarren bizitzetan eragin dituen aldaketak aipatzen dira, izan ere, aldaketa honek irundarren ohitura eta bizimoduan aldaketa oso nabariak eragin baitzituen.

Jarraian, "Buzón el Bidasoa" atalean aldizkarira irakurleek idatzitako gutunei erantzuten zaie, jasotako gutunen egokitasuna baloratuz. Hurrengo atalak "De todo un poco" izena du eta Irun eta inguruko herrietako eguneroko bizitzako kontuekin loturiko albiste laburrei tartea eskaintzen zaie. Ostean, "Txori txikia" izenordearekin sinaturik, "¡Aiene!" olerkiak betetzen du hurrengo zatia.

Kirol kronikari eskainitako atal luze batean, futbola da hizketa-gai nagusia, hainbat talderen arteko partiduen emaitzak komentatzen direlarik, hala nola, Real Union, Reala, Bartzelona eta beste hainbat. Kirola alde batera utzi eta aldizkarian gaurkotsuzko gaiek protagonismoa irabazten dute berriro, kasu honetan, patatzen prezioaren igoera.

"Filosofía barata" titulupean "X" izenordea darabilen autoreak neska-meen grebarako eskubidea zalantzan jartzen du. Aduanaren inguruko azken nobedadeak aipatzeaz gain, zenbaki honetan aduanek azken astean loturiko irabaziak publikatzen dira. Mugaren gaiari eutsiz, Frantzia eta Espainiako estatuaren arteko harreman komertzialak hobetzeko Madrilen sorturiko "Office Comercial"-aren sorreraren berri ematen da.

Ondoren, azken udal bilkurako erabakiak banan-banan zerrendatzen dira eta "Principal eta "Bellas artes" antzokietako datozen egunetarako programazioa errepasatzen da. Gainera, Aste Santuan zehar Junkaleko parrokiaren egingo diren ekintzen egitaraua gehitzen da ere.

Beti bezala, aurreko zenbakietan ikusi bezala, "Ecos de sociedad" atala hiriko biztanle aberatsen nondik norakoak errepasatzen dira. Azkenik, albiste laburren atalean, guardiako farmazia eta azken jaiotza, ezkontza eta heriotzen berri emanez aldizkariaren zenbaki honi amaiera ematen zaio, hiriko establezimenduen publizitate orrialdearen aurretik.



## IRUNERO

### Erredakzioa eta maketazioa:

Joseba Arozena  
Ainara Berges

erredakzioa@irunero.eus  
irunero@irunero.eus

### Publizitatea:

Amaia Terrazas  
(amaia@irunero.eus)  
Ion Otxoa  
(ion@irunero.eus)  
Joseba Arozena  
(jarozena@irunero.eus)

### Diseinua eraberritzea:

Andrea Gomez Arocena

### Argitaratzailea:

837 comunicación y publicidad S.L.  
www.837comunicacion.com

### ISSN:

1134-0606

### Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943 04 20 52

Wegunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)  
diruz lagundua:



Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



## Luis Mari Elorz medikuak Hiriko Urrezko Domina jaso du

Luis Mari Elorz medikuak Hiriko Urrezko domina jaso du. Martxoaren 30ean antolatu zen domina emateko egintza instituzionala egin zen kapitulu gelan. Senide eta lagunak babesarekin, mediku irundarrak 30 urte baino gehiagotan zehar eginiko lana saritu zen. Irungo Udaletxe-ko Kapitulu Aretoa medikuaren senide, lagun eta udalbatzako kideekin bete zen sari banaketa ospatzeko

Irungo Hiritar Foroak aurkeztu zuen, hiriko 40 entitateen babesarekin, 2019 urteko urrezko dominarekin mediku irundarraren ibilbide profesionala saritzeko proposamena. Eskerari, dominaren merezimendua nabarmen zuten: "mediku ibilbide profesionalaren ibilbide luzean hiriari eta bertakoei emandako zerbitzuengatik eta, halaber, gizartean balio unibertsal zintzoenak lortzeko izan duen inplikazioarengatik eta egin duen ekarpenarengatik". Proposamena aztertu ostean, Bozeramaileen Batzordeak erabakiarekin bat egin zuen. Azkenik, hiriaren urrezko dominaren esleipena urtarrilaren 25eko osoko

bilkuran formalizatu zen.

Luis M. Elorz doktoreak hogeita hamar urtetik gora eman ditu hirian medikuntza-lanetan eta haren pazienteak izan direnek zalantzarik gabe nabarmen zuten bere enpatia, entzuteko eta sufrimendua ulertzeko gaitasuna eta sufrimendu hori arintzeko adorea. Era berean, hiria hobetzeko pertsona honek bere bizitzan zehar izandako konpromisoa ere nabarmendu daiteke, Irungo Hiritar Foroako presidente izan den aldetik eta kausa humanitarioen alde ere egin duen lanagatik.

Gogoratu behar da Irungo Udalbatzak 2003ko urtarri-lean Ohore eta Sarien Arautzea onetsi zuela Urrezko Do-



mina ematea. Horren helburua da aitortpena eskaintzea beren lanarekin gizarteari bizikidetzara, tolerantzira, eskuzabaltasun- edo konkordia-balioen ekarpena egin dioten pertsonari, Irunen jaiok izan ala ez, edo entitateei. Eta, aldi berean, aitortpen honen bitartez, gizartean tolerantzia eta begirunea sustatu nahi dira.

## Zabalik dago Kontenporanea 2019 ediziorako proiektuak aurkezteko epea

Apirilaren 22ra arte zabalik egongo da 2019ko Kontenporaneako deialdira proiektu artistikoak aurkezteko epea. Deialdia haien lanak lehiaketara aurkeztu nahi dituzten artistentzat zabalik dago. Deialdiko informazio guztia eta oinarriak [www.irun.org](http://www.irun.org) webgunean topatu daitezke.

2019ko deialdiko gai nagusia elkartrukea izango da. Ze-

hazki, gizaki eta ez gizakiaren arteko elkar trukeari buruz eztabaidatzen duten proposamen artistikoak eskatzen dira deialdi honetarako. Hortaz gain, proiektu deialdiko erakusketek lengoia, kulturartekotasuna eta mugaren gaiarekin loturiko proposamen artistikoak eskatzen dira ere.

2019 edizioko batzorde kudeatzailea Miguel Matador, Haizea Olaizola eta Julen Sanchezek irundarrek eta Hendaiko biztanlea den Maialen Caballerok osatuko dute, Fadira Drakonaki gazte greziarrarekin batera. Batzorde honek, proiektuaren koordinazioaren zati bat kontrolatuko du, programazioaren diseinuan, produkzio zereginetan eta komunikazio erantzukizunak izango dituztelarik. Gainera, Bitamine Faktoriak eta Irungo Udaleko Kultura

arloak koordinazio prozesua gauzatzeko laguntza eta babesa eskainiko dizkiete.

Kontenporanea Irungo udalak antolaturiko kultura garaikideko topaketa da. Bitamine Faktoria proiektu koordinatzailearen laguntzarekin arte, diseinu, eta kulturaren arloan trebatutako gazteak elkartzeko helburua duen topaketa da. Arte garaikideko topaketa honen berezitasuna gazteei zuzendua egoteaz gainera, hein batean gazteen-entzuten antolaturik dagoela da.

Honela, Kontenporanea elkarketa puntu batean bihurtu nahi da arte, sorkuntza kolektiboa, parte-hartzea eta arte kaletarraren artean, honela, kudeaketa prozesua, produkzio artistiko eta kulturalaren prozesuari balioa eman nahi zaio. Gainera, diziplina anitzeko kolaborazioko lana bultzatzeko helburua du ere.

Kontenporanea 2015 urtean jaio zen Udalaren Aurrekontu Parte Hartzaileetan bildutako proposamen baten harira. 2018 urteko Kontenporanea deialdira 49 lan aurkeztu ziren 18 herrialde ezberdinetatik. Kolonbia, Mexiko, Frantzia, Australia, Singapur edo Venezuela bezalako herrialdeetatik iritsitako proposamenak jaso ziren.



**Pertsonak zein taldeak kohesionatuak, zoriontsuak eta motibatuak izatea funtsezkoa da proiektu/enpresa baten etorkizuna bermatzeko!**

[www.anaeguiazabal.es](http://www.anaeguiazabal.es)  
[info@anaeguiazabal.es](mailto:info@anaeguiazabal.es)

- ✓ Saio individualak
- ✓ Egokitutako tailerrak
- ✓ Taldeentzat prestatutako tailerrak



# Sormena eta berrikuntzarako tartea

Bostehun pertsonak baino gehiagok parte hartu zuten martxoaren 21eko jardunaldian



**Martxoaren 21an Krea Bidasoa azokaren 11. edizioa antolatu zen Ficoba Erakustazokan. Irun eta Hondarribiko Udalek Bidasoa bizirik elkartearen laguntzaz antolaturiko jardunaldia pertsona eta enpresa ekintzaileei zuzendurik egon da, izaera publiko edo pribatuko erakundeentzako prestaturik egoteaz gain.**

Aurtengo Krea Bidasoa azokaren leloa eta irudia maker mugimenduari lotura estua izan du. Izan ere, "Hazlo tu mism@ - Egin zerorrek - Fais-le-toi-même" leloa oinarritzat hartuta, "KreaTU" irudia erabili da azokaren helburua eta antolaturiko jarduerak ezagutzera emateko. Edizio berri honen inspirazioa izan den Maker mugimendua era pertsonalean ahalmen industrialaren garapena bultzatzen du, ohiko baliabideen aprobetxamendua bitartez eta gizarte osorako eskuragarri dauden baliagarrien ustiapenaren bitartez.

Hortaz gain, pertsona, enpresa eta erakunde publiko zein

pribatuek elkar ezagutu, esperientziak eta kontaktuak partekatu, lankidetzeta edo negozio aukera berriak topatu eta arrakasta izan duten enpresen kasuak gertutik ezagutzeko aukera izan dute. Honela, espirtu ekintzailearen balioak eta gaitasunak ezagutzera eman dira.

Maker zirkuitu teknologikoan azokan parte hartu zuten enpresen produktu berriak ikusteko aukera izan zen. Hauek izan ziren Krea Bidasoa azokaren 11. edizioan parte hartu zuten enpresak: 3Dbide, 3D Berridi, Tumaker, Elle&Alle, Arplastic, Surf Logic eta Accuro by Alcad. Gainera, Maker Objects Museoan "Compagnie des Vents et Mareés" konpainiaren bisita gidatuaren eskutik Maker iraultza digitalaren sekretu interesgarri eta ezkutuak deskubritzeko aukera izan zuten bisitariak.

#### Tailer eskaintza zabala

Aurreko edizioetan bezala, aurtengo Krea Bidasoa azoka egitarau anitz baten inguruan antolatu da. Egun osorako egitarauaren barnean, era askotariko tailer ugari egon

dira: Emozio kudeaketa, publizitatea, 3D inprimaketaren joerak, enpresentzako WhatsApp kudeaketa, antolatzaileak eraldaketa digitalera egokitzeko gakoak, enpresa txikien kontrako ziber-erasoen eragina murrizteko irizpideak eta Smartphone gailuen bitarteko sorkuntza.

#### Ikasleentzako tartea

Eskualdeko formazio-zentroetako ikasleek haien espazioa izan dute Krea Bidasoa azokaren barnean. Plaiandi BHI, LHII Bidasoa, Irungo La Salle, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapena, Landa Ingurumena eta Lurralde Oreka saila, Mondragon Unibertsitatea eta Tknika zentroek parte hartu zuten ekintza horretan. "Hackathon" bezala ezagutzen den esperientzia kolektibo baten bitartez, ikasle taldeek prototipatu teknologikoaren inguruko proiektuak garatu dituzte. Zentzu horretan ere, maker txoko bat izan zen eta bertaratutako pertsonen haien sorkuntzak eraiki eta sare sozialetan #KREA2019 traolaren bitartez partekatzeko aukera izan zuten.

Neumáticos  
**txepetxa**

NEUMATIKOEN SALMENTAN LIDERRAK,  
AUTO SALMENTAN ETA AUTOEN KONPONKETETAN LIDERRAK

info@txepetxa.com • Letxunborro Hiribidea, 92, Irun • 943 63 13 99

# teia Krea Bidasoaren 11. edizioan

## Sonia Ruiperez, Elle&Alle:

Elle&Alle garapen iraunkorreko proiektu bat da, neurrira egindako jantzigintzako teknika tradizionalak material berriekin konbinatzen dituena. Honela, 3D inpresioaren bitartez landu daitezkeen material berriei bidea irekitzea proposatzen dut. Azokara “4 urtarokak” deituriko bilduma ekarri dut, honela, antzinako ekoizpen-prozesuei teknologiaren garapenak eskaintzen dizkigun berrikuntza berriak batzeko aukera ugari dauzkagula erakusteko. Oso pozgarria iruditzen zait Krea Bidasoa azokan parte hartzeko aukera eta udaberri jantzita etorri naiz, denbora luzeko lanaren ostean, azokak eskaintzen didan aukera paregabe honen aurrean sentitzen dudana adierazteko.



## Javier Gonzalez Vega, Surf Logic:

Surf Logic enpresa uretako ekintzak egiterako orduan erabili ohi diren neoprenoak lehertzeko lehorgailuaren salmentara bideraturik dago. Horretarako, orain arte mundu mailan neopreno lehorketarako existitzen ez zen sistema berri bat patentatu dugu. Proiektu honekin Irungo Udalaren Irun Ekintzan saria eskuratu ostean, duela hiru hilabete merkatura atera berri den proiektua azokan erakusteko gonbidapena jaso genuen. Horregatik, proiektua erakutsi eta ezagutzera emateko aukera eskaintzen duten ekintza guztiak oso positiboak dira honelako proiektu berritzaileak laguntzeko.



## Mikel Arbeloa, 3Dbide:

Azokaren aurreko edizioan gure lankideek parte hartu ostean, aurtengo edizioan parte hartzea erabaki dugu jende gaztearekin harremanetan egon eta beste enprekin kontaktuan egoteko. 3Dbide izeneko marka bat gara, Iruñeko “Iruña tecnológías” eta “Iruñeak 3D” enpresen aliantzatik sortu dena. Azokara hiru produktu ezberdin ekarri ditugu. Batetik, kolaboraziorako robot bat, era errazean programatu daitekeena. Bestetik, pieza baten geometria digitalki antzeman eta 3D artxibo bat sortu dezakeen eskaner bat eta, hirugarren makinaren bitartez, lortutako artxiboa inprimatu eta karbono edo bidriozko zuntz baten bitartez indartzeko aukera eskaintzen duen inprimagailua daukagu.



## Aitor Berridi, 3D Berridi:

Krea Bidasoa azokan parte hartzeko hiru dimentsiotan inprimatutako hegazkin batzuk ekarri ditut. Izan ere, 3D Berridi enpresak hiru dimentsiotan inprimatu daitezkeen hegazkinen salmenta du helburu, horregatik, “3D inprimaketarekin hegan eginez” leloa erabiltzen dugu gure ideia jendearen artean ezagutzera emateko. Horrela, “Glue free” izeneko sistemen bitartez, muntai modularrean oinarritzen gara, itsasgarriak saihestu eta muntaketa eta konponketa azkarrago bat ahalbidetuko dituen sistema bat eskaintzeko asmoz. Niretzat aukera bikaina da Krea Bidasoa azokaren 11. edizioan parte hartzeko eskaini didaten aukera eta jendea gure produktuak ezagutzeko interes handi erakusten ari da.



## La Salleko ikasleak:

Jardunaldi honen aurretik egindako bileretan gure ideia sortzeko aukera izan dugu. Hain zuzen ere, gure ideia energia zinetikoa sortzeko ahalmena duen eskumuturreko bat sortu nahi izan dugu. Gaur, lana erdizka eginda zekarren programa bat jarri digute eskuartearen eta gure zeregin goizean zehar programa hori berriro programatzea izan da aurretik pentsatua geneukan eskumuturrekoaren prototipoa sortu ahal izateko. Oso interesgarria iruditu zaigu Krea Bidasoaren azokan parte hartzeko aukera, izan ere, formazio-zentro ezberdinetako ikasle hugarri bildu gara hemen eta oso aproposa iruditzen zaigu ikasleei haien ideiak adierazteko aukera hauek ematea.

Ainara Maia, poesia idazlea:



“Nire ustez  
poesia  
gauzak  
zeharka  
esateko  
modu bat  
da”

Ainara Maia Urrozek, “Muxuak” titulupean, 24 olerki bildu ditu bere azken poema-liburua argitaratzeko. 2012 urtean argitaratutako “Chansons d’amour” lanaren ostean, Iñaki Martiarena marrazkilaria laguntza izan du bere lana irudiz osatzeko. Elkar liburu-dendetan eskuratu daiteke idazleak Zortziko argitaletxearen bitartez publikatutako azken lana.

#### Nolako harremana duzu poesiarekin?

Idazle profesionala ez banaiz ere, idazle kontsideratzen naiz, egunero literatura idazten baitut. Poesia irakurlea izateaz gain, argitaratzen dudana bigarren poema liburua da hau.

#### Nola bururatu zitzaizun “Muxuak” poema-bilduma sortzeko ideia?

Duela 11 urte Bergarako Idazle Eskolako ikaslea nintzen eta, betidanik poesia idatzi izan dudana arren, Idazle Eskolan idazteko grina areagotu zitzaidan. Eskolan gauza asko irakurtzen genituen eta ideia asko etortzen zitzaizkidan burura, beraz, gai konkretu baten inguruko olerki-sorta bat egitea bururatu zitzaidan eta muxuen gaia aukeratu nuen. Idazle Eskolako azken urteko beka-proiekturako aurkeztu nuen lana da.

#### Olerki-bildumaz gain, ilustrazioek protagonismo berezia dute liburu honetan?

Bai, idazle eta ilustratzailearen arteko kooperaziozko proiektu poetikoaren emaitza da liburua. Duela bi urte

### “Idazle eta ilustratzailearen arteko kooperaziozko proiektu poetikoaren emaitza da liburua”

eta erdi “Mattin” Iñaki Martiarena ilustratzailea ezagutu nuen eta nire poesiarekiko interesa erakutsi zuen. Muxuak bilduma bidali nion eta ezustean bilduma osatzen duten poema guztiak ilustratu zitzaizkidan, akuarelak erabiliz eta bere estiloa jarraituz.

#### Nolako izan da argitalpen prozesua?

Ilustrazioak ikusi nituenean lana argitaratzeko gogoak piztu zitzaizkidan berriro eta, hainbat argitaletxetan atjoka ibili ostean, Angeluko Zortziko argitaletxe txiki lana argitaratzeko prest agertu zen.

#### Zure bigarren liburua denez, aurreko esperientzia lagungarria izan zaizu?

Bai, nahiz eta desberdina izan den. Lehen poema-liburuan askoz poema gehiago zeuden eta 4 zatitan banatuta zegoen. Bigarren liburua, berriz, 24 poema edo muxuz osaturik dago eta olerkiak duela 11 urte idatzi nituenez, zuzenketaren bat edo beste egin behar izan dut.

### “Nire pertzepzioaren arabera Euskal Herrian poesia idazten duen jende asko dago”

Non eta noiz egin zenuen liburuaren aurkezpena? Liburua azaroaren amaieran argitaratu zen eta Durangoko Azokako larunbatean aurkeztu nuen. Ondoren, Aaurin zuzeneko poesia errezitaldi musikatua egin nuen eta, duela gutxi, Irungo Elkar liburu-denda bildumaren errezitaldi txiki bat egin zen ere.

#### Buruan proiektu berriren bat duzu?

Pasaden udazkenean, irailtik azarora, “Beste hitzak” programaren bitartez Mazedoniako Ohrid herrian idazle-egonaldi batean parte hartu nuen eta bertan idatzitako bilduma argitaratzea gustatuko litzaidake. Hortaz gain, poesiarekin loturiko beste proiektu batzuk dauzkatz ere.

#### Nolako egoera bizi du poesiak gaur egun Euskal Herrian?

Aspalditik Senperen urtero argitaratzen den Hatsaren Poesia izeneko olerki-bilduma kolektiboan parte hartzen dut, non Euskal Herri osoko poetek parte hartzen dute bertan. Nire pertzepzioaren arabera poesia idazten duen jende asko dago Euskal Herrian. Poesia mota asko dago eta, nire ustez, poesia gauzak zeharka esateko modu bat da.



# Emakume saharaien egoera gertutik ezagutzeko aukera



**Martxoaren 27an Irungo kale nagusiko Gaurko Andreak elkartearen egoitza txiki gelditu zen. “Emakume Saharaien egoera gaur egun, itzultzeko eskubidea” titulupean, errefuxiatu kanpamentuetan zein lurralde okupatuan bizi diren emakumeen egoera hobeto ulertzeko hitzaldia eskaini zen.**

Duela hiru urte, martxoaren 8ko ospakizunari jarraipena emateko asmoz, Gaurko Andreak Berdintasunaren Aldeko Elkarteak “Emakume Ahotsak” hitzaldi-zikloa martxan jarri zuen. Zikloaren helburua gizarteko eremu ezberdinetan lan egiten duten emakumei komunikazio eta ikusgarritasun espazio bat eskaintzea da. Martxoaren azken asteazkeneko hitzaldia ziklo honen barneko bigarren hitzaldia izan zen eta Jaione Hervas abokatuak eta Umlajut emakume saharaiak parte hartu zuten bertan.

Jaione Hervasek, Irunen lan egiten duen abokatu donostiarra, Saharako gatazka inguratzen duen arlo juridikoren inguruko zertzelada nagusiak eman zituen, emakume saharaien egoera ezberdinak ulertarazteko. Nahaste politiko eta juridikoa ulertzeko Francoren garaira arte denboran atzera egitea beharrezkoa zela azaldu zuen, hain zuzen ere, Espainia, Maroko eta Mauritaniaren artean izandako negoziaketetan murgiltzeko.

Duela 40 urte baino gehiago piztutako gatazkak eragin-

dako exodoaren ondorioz, egun emakume saharaiak bizi dituzten egoera ezberdinak azaldu zituen Hervasek. Egun, emakume saharai batzuk errefuxiatu kanpamentuetan bizi dira, beste batzuk Marokok okupatutako lurraldeetan daude. Okupatu gabeko lurraldeetan bizi diren emakume saharaiak daude ere, munduan zehar sakabanatutakoez gain. Abokatuaren hitzetan, bizilekua-aren ondorioz, sekulako aldeak daude emakume bakoitzak dauzkan egoera eta eskubideetan.

Umlajut “Doctora Beituha” elkarteko kidea den emakume saharai Irunen bizi da gaur egun. Umlajut-ek Saharan emakume bezala lehen pertsona bizi izandako egoera eta bizipenak partekatu zituen. Jaionek emandako azalpenari jarraipena emanez, errefuxiatu-esparrutan eta lurralde okupatuetan bizi diren emakumeen egoeren arteko aldeak azaldu zituen.

Errefuxiatu-esparrutan bizi diren emakumeek lurralde okupatuetan bizi direnek baino askatasun gehiago dauzkatela azaldu zuen Umlajutek. Izan ere, gizonak gerran dauden bitartean, emakumeek dena kontrolatzen dute familia aurrera atera ahal izateko. “Dena aurrera ateratzeko borrorak etengabe bizi dira errefuxiatu-esparrutako emakumeak”, adierazi zuen Umlajutek. Okupatutako lurraldeetan, ordea, emakumeak guztiz kontrolaturik daude, haienganako eraso, bortxaketa eta biolentzia etengabeak jasan behar dituztelarik. Emakume saha-

rauien egoeraren ikuspegi sakonagoa eskaini eta herri Saharaiaren egoera hobeto ezagutu ostean, tearen zeremonia tradizionalarekin amaitutzat eman zen topaketa, bertaratutakoen arreta eta gaiarekiko erakutsitako ardura eskertzeko.

## “Doctora Beituha” elkarteak

Kuban ikasketak burutzen ari zela istripu batean zendutako Beituha Embark-en omenez sorturiko elkarteak da. Ikaskidearen omentzeko, bere izena daraman entitate ongile bat sortzea erabaki zuten Kuban berarekin batera ikasitako emakume Saharai talde batek. Elkartearen helburua herri Saharaiari laguntza eskaintzea da, egun bizi duen egoera gogorrari aurre egiteko. Bildutako diruarekin, proiektu humanitarioak sustatu, antolatu eta gauzatzea du helburu, beste gauza batzuen artean.

## Gaurko Andreak Elkarteak

Gaurko Andreak Berdintasunaren Aldeko Elkarteak 2008 urtean sortu zen emakume eredu ezberdinak ikusgarri bihurtu eta emakumeek eguneroko bizitzan pairatzen dituzten egoera anitzehi ahotsa emateko helburuarekin. Sorrrera helburuei eutsiz, emakumeentzako ahaldunduzten tailerrak antolatzen dituzte, gai ezberdinak lantzeko hitzaldi eta konferentzia irekiez gain. Bestalde, eskoletan berdintasun tailerrak kudeatzen dituzte, etxeko txikien artean berdintasunean oinarritutako gizarte baterako baloreak zabaltzeko.

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780



CASER ANAKA

**caser**  
residencial

GURE AITONA-AMONEN  
ONGIZATEA HELBURU  
Egonaldi iraunkorrak  
eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169



CASER BETHARRAM

# Miliak Osasunaren Alde ekimenak Irungo kaleak bete zituen martxoaren 31ean

Egun horretan bertan Zabaltza plazan urteko lehen igande sasoia antolatu zen



Martxoaren 31ean Irungo kaletan Miliak Osasunaren Alde kirol jardunaldia antolatu zuen Super Amara Bidasoa Atletiko Taldeak. Goizeko 10:00etatik aurrera Kolon pasealekuko inguruak jendez bete ziren probetan parte hartu edo lasterkariak animatzeko. Kirola praktikatzeko aukeraz gain, elkartasunerako tartea izan zen, Milia Solidariooko dortsalekin bildutako dirua minbiziaren aurkako Bidasoa AECC elkartearen delegazioa laguntzeko erabili baitzen.

Super Amara Bidasoako Atletismo Taldeak jardunaldi hau antolatu duen laugarren urtea izan da hau. Errelebo lasterketa soil bat bezala jaio zen lasterketa urteen poderioz aldaketa ugari jasan ditu, era askotariko parte-hartzaileentzat egokia izan daitekeen proba batean bihurtu arte.

Eguneko lehen ekintzak goizeko 10:00etan abiatu ziren adineko pertsonen zuzendutako Ttipi-Ttapa ibilaldi osasuntsuarekin. Irun eta Hondarribian ibiltzeko irteerak antolatzen dituen taldea miliaren ibilbidearen barnean abiatu zuen pasaden igandeko irteera.

10:45etan IV. Salto System Errelebo Lasterketari irteera eman zitzaion. Probako honetan helmuga zapaldu zuen lehen taldea Flooting Team taldeko gizonetakoak izan ziren. Lehenengoak izateaz gain, probaren errekor berria ezarri zuten, 20 minututan burutu baitzuten lasterketa osoa. Emakumezkoen artean Hamster Team izan zen garailea eta talde mistoetan, berriaz, Salto System taldea.

Ostean, Hanbike eta aulkientzako Milako Lasterketako parte-hartzaileak izan ziren Kolon Pasealekuko ibilbidea zeharkatzen

hurrengoak. Ondoren, Desgaitasun Intelektualak dauzkaten kirolariei zuzenduriko Mila Erdiko lasterketa ospatu zen. Haiekin batera, senideek, BAT taldeko kirolariek eta lasterketan parte hartzeko nahia izan zuen edonork izan zuen lasterketa egokituan parte hartzeko aukera.

Eguerdiko 12:00etan, lehiarako bigarren probaren txanda izan zen, Bikotekako Irungo 3 Miliak lasterketarekin. Bikote misto, maskulino edo femeninoek 3 miliako ibilbidea osatu zuten. Proba honetako kategoria ezberdinetako irabazleak Saioa Goyeneche eta Leire Martínez, Hoki Guerrero eta Julen Ibañez eta Iñaki Gavela eta José Antonio Gómez de Arriba izan ziren.

#### Proba solidarioa

Eguneko ekintza solidarioaren probarekin itxiera eman zitzaion igande goizean

zehar antolaturiko kirol proba ezberdinei. Bidasoako Minbiziaren Kontrako AECC elkarteren delegazioa %100ean bideratuko diren 3 euroko dohaintzaren truke edonork izan zuen Familientzako Martxa Solidarioan parte hartzeko aukera. Parte-hartzaileek ibilbidea korrika edo oinez egiteko aukera izan zuten adin-mugarik gabeko proban. Guztira 350 dortsal saldu ziren eta 2.000 euro inguru bildu ziren.

#### Igande Sasoi

Osasunaren Aldeko Miliak jardunaldiaz gain, urteko lehen igande sasoia antolatu zen igande horretan bertan Zabaltza plazan. Horretarako, atletismoaren munduarekin loturiko kirol ezberdinak probatu ahal izateko materiala Zabaltza plazara hurbildu zuen Bidasoa Atletiko Taldeak. Honela, hurrek kirola praktikatu eta atletismoarekin loturiko kirol diziplina ezberdinak probatzeko aukera izan zuten.



## bideosare

*Bideoak zure erara!*



- > Ikus-entzunezko proiektuak
- > Bideo grabaketa eta edizioa
- > Multimedia

bideosare.com





Javier Garrido, Real Unineko futbolaria:

## “Guztion artean taldea aurrera atera behar dugu eta partiduak irabazten hasi behar gara”



**Javier Garrido irundarrak, Europako talde ezberdinetan jokalaria moduan aritu ostean, etxeko taldean jolastera itzuli da. Bost edo sei urterekin hasi zen lagunekin batera Irungo Dunboa taldea futbolera jolasten. Orain, ordea, Real Unioneke jokalaria bezala talde irundarra promozio postuetatik ateratzeko borrokatzeko prest dago.**

**Urte askotan kanpoan egon ondoren, etxera itzultzea erabaki duzu?**

Bai, orain dela asko kanpoan egona naiz. Iaz hemen entrenatzen hasi nintzen eta lesio bat eduki nuen, nahiz eta nire buruan hemen fitxatzea neukan. Aurten aurre-denboraldian horrela egin nuen eta pozik nago.

**Urte asko eman zenituen Realaren barnean?**

Harrobitik eta Realaren barnean era profesional eta pertsonalean hazi naiz. Beti nire bihotzean eramango ditut Real eta Dunboa taldeak.

**2003an lehen talderako saltoa eman zenuen?**

Bai, lehen entrenamenduak egin ostean, Oviedoren aurkako Errege Kopan debutatu nuen eta 2004ean jokalaria bezala hasi nintzen. Hiru urte egon nintzen lehendabiziko taldean eta handik aurrera mugitzen hasi nintzen.

**Erreala atzean utzi eta Europatik barrena ibili zinen?**  
Nire buruan kanpora joatearen ideia ez nuen arren, aukera agertu zen eta pausua ematea erabaki nuen. Hiru urte pasa nituen Manchesterren, beste esperientzia po-

lita izan zena. Handik aurrera, aldatu, Italiara joan nintzen eta bi urtez egon nintzen Erroman. Ostean, Norwichera joateko sekzio bat etorri zen eta beste hiru urte pasa nituen han oso gustura.

**Las Palmas taldera pasa zinen ostean?**

Bai, hogeit hamar partidu baino gehiago jokatu nituen bertan egondako urtean. Hasieran kostatu zitzaidan, berandu iritsi nintzelako eta, forma fisikoa berreskuratu ostean, erritmoa hartu nuen. Denboraldi txukuna egin genuen eta handik Txiprera joan nintzen.

**Zelako esperientzia izan zenuen Txipren?**

Joan nintzenean ez nengoen oso seguru, gainera bikote-kidea hemen nuen. Azkenean joateko erabakia hartu nuen eta urte bat jolastu nuen bertan, Liga irabazteko borrokan ibili ginen.

**Nolakoa da Europatik itzuli eta etxetik zu ibilitako beste taldeen aurka jolastea?**

Denboraldia hasi aurretik lagunarteko partiduak jolastu ditugunez ohitzeko aukera izan dut. Gauzak ezberdinak

## “Jokalaria oso onak ditugun arren, talde bezala zerbait falta zaigu”

dira, orain hemen nago maila ezberdin batean eta momentu eroso batean aurkitzen gara, azken egunetan gertatutako gorabeherak alde batera utzita. Guztiak egoera honetara iritsi izanaren errudun gara, baina, taldea aurrera atera behar dugu, lehenbailehen partiduak irabazten hasi behar gara.

**Alberto Iturralde entrenatzaile berriarekin, entrenamenduetan aldaketarik nabaritu duzue?**

Oraindik goiz da eta bakoitzak taldea zuzentzeko era ezberdin bat dauka. Azken finean gu jokalaria gara eta guk atera behar dugu hau aurrera. Izan ere, errazago da entrenatzailea kanporatzea, 20 jokalaria kanporatzea baino. Hori guztiok dakigu eta gure esku dago aurretik daukagun 8 partiduetan dena ematea.

**Denboraldian zehar izandako berdinketetan puntu asko galdu dituzuela uste duzu?**

Ez da normala. 17 berdinketa izan ditugun arren, batzuk oso partidu onak izan dira, talde onen aurka. Besteetan, ordean, nire ustez gu baino maila baxuagoa duten taldeak gurekin berdinketara iristea lortu dute. Orain hori ahaztu eta hurrengo partiduko hiru puntu garrantzitsuak lortzen saiatu behar gara.

**Nola ikusten dituzu hurrengo partiduak?**

Une honetan dugun egoera ez da pozgarria. Jokalaria oso onak ditugun arren, talde bezala zerbait falta zaigu eta hori txukundu beharra dugu.

# Martxoak 15: Kontsumitzaileen Eskubideen Nazioarteko Eguna



1983 urtean Nazio Batuen Erakundeak urtero martxoaren 15ean Kontsumitzaileen Nazioarteko Eguna ospatzea erabaki zuen Estatu Batuetako John F. Kennedy presidentek 1962 urteko martxoaren 15ean egindako hitzaldi baten harira. Hain zuzen ere, hauek izan ziren Estatu Batuetako presidentek esandako hitzak. *“Kontsumitzaile izateak, definizioz, denok elkartzen gaitu. Merkatuko talde ekonomiko handiena gara, eta erabaki ekonomiko publiko guztiak baldintzatzeaz gainera, horien eragina jasaten dugu ere ... Hala ere, askotan ez dira talde garrantzitsu honen iritzia entzuten”*. Honela, historian lehen aldiz, produkzio prozesuaren barnean kontsumitzailea funtsezko elementua bezala errekonozitu, kontsumitzailearen garrantzi politikoa kontutan hartu zen eta instituzioei eskatu zitzaizkien kontsumitzaileen eskubideak babesteko neurriak ipintzea, neurri horien betekizunaz gain.

Kontsumitzailearen Eskubidearen Nazioarteko Eguna kontsumitzaileei haien eskubideak gogoratu eta horiek gauzatzeko eskura dauzkaten mekanismoak gogorazteko baliagarria izan behar da. Urtero, “Consumers Internacional” (CI), mundu mailako kontsumitzaile elkarte guztiak bateratzen dituen erakundeak, urte bakoitzerako gai zehatz bat hautatzen du lehentasunezko interesa duen gai moduan. 2019 urteko Kontsumitzailearen Eskubideen Nazioarteko Eguna ospatzeko antolatutako gaia “Konfiantzazko produktu adimentsuak” izan da.

Telefono adimentsuak, fitness ekintzak antzemateko gai diren gailu eramangarriak, ahotsaren bitartez kontrolatzen diren laguntzaileak, telebista adimentsuak, ... egunerokotasunean erabiltzen ditugun geroz eta produktu gehiago aurretik zehaztuta dato-

rren era batean konektaturik daude. Horregatik, Kontsumitzaileen Eskubidearen Nazioarteko Egun honetan, konektaturik dagoen mundu batean kontsumitzaileek zer nahi duten eta zer behar duten nabarmentzeko ahalegin bat egingo dugu, honela, kontsumitzaileak produktu eta zerbitzu digital hauen garapenaren erdian kokatzea zein garrantzitsua den erakusteko.

Produktu adimentsuak internetera konektaturik daude eta datuak jaso, bildu eta horien bidalketaz arduratzen dira. Une honetan mundu mailan produktu adimentsuen kopurua 23.100 milioikoa da, pertsona kopurua heren bateko proportzioarekin gaindituz. Zenbat eta pertsona gehiago era honetako gailuetara konektatu, Interneteko konexioa hobetu eta azkarrago bihurtzen da, gailu adimentsuak mundu osoko kontsumitzaileentzako egunerokotasunaren barneko errealitate batean bihurtzen dira, kontsumitzaileek produktu eta zerbitzuekin interakzioan jartzeko duten moduan aldatuta garrantzitsuak eraginez.

Teknologia adimentsuen agerpenak aukera ugari eskaintzen dizkie kontsumitzaileei: zerbitzu berrietara sarbidea, sentikorrakoak diren produktuak, erosotasun eta aukera gehiago. Hala ere, kezka sor dezaketen hainbat kausa antzeman dira ere: seguritate eta pribatutasun falta adibidez, gailu horietaz egiten dugun erabilerarekin loturik daudenak eta gauzak gaizki ateratzen direnean ardura norengan dagoen inguruko argitasun falta.

Sarbide faltarekin loturiko arazoak daude ere, datu karga altuengatik teknologia berri hauetarako sarbidea blokeaturik duten milaka pertsonekin. Horregatik, Kontsumitzailearen Eskubidearen Nazioarteko Eguna kontsumitzaileetan inpaktu erreal bat sortu eta mundua behatu eta kontsumitzaileen eskubideen betekizuna bermatzearren garrantzia oroitarazteko. Gainera, egun hori aprobetxatuz, ACUBIk 2018 urtean zehar buruturiko lana oroitarazteko aitzakia aprobetxatu nahi du, azken urtean zehar izandako kontsulta-datuei aipamen berezia eginez, izan ere, 1.882 kontsulta baitzituen eskualde mailan elkarteak.

EGUNEKO MENUA · DASTATZEKO MENUA · KARTA · PINTXOAK ETA ERRAZIOAK



Meaka auzoa, 9 – 20305 IRUN  
Tel.: 943 841 964

FELIX MANSO IBARLA JATETXEA

info@felixmanso.com  
www.felixmanso.com



# El Pilar HH



# Denborapasak

## Zazpi zuhaitz

G	K	U	E	A	S	L	H	V	F	D	C	P	V	Y	W	U
D	A	H	W	Q	T	C	F	K	I	F	A	J	A	N	K	B
N	H	Z	W	Y	G	O	G	I	L	E	K	G	E	G	M	T
U	A	Q	T	M	E	W	H	E	F	N	A	O	E	A	O	J
V	W	A	S	A	A	Q	J	O	G	Q	M	J	U	E	W	A
A	S	P	N	A	I	R	U	F	Y	L	Z	E	D	R	O	W
F	G	Q	F	U	R	N	O	E	E	Y	F	J	E	X	E	U
K	R	E	A	A	D	I	O	J	H	A	R	I	T	Z	A	C
T	M	G	M	U	Q	Y	T	N	O	A	A	R	K	N	G	E
K	Q	I	O	V	W	B	G	A	D	I	Q	K	K	A	I	Q
B	W	S	Z	F	Z	D	U	H	A	O	R	V	E	N	M	M
W	L	G	Z	O	T	T	Y	O	E	O	O	Y	Y	F	K	P
S	A	G	A	R	R	O	N	D	O	P	I	N	U	A	C	W
W	I	N	L	N	O	Y	E	I	N	D	L	U	A	H	M	L
C	N	E	M	Y	P	A	A	S	E	K	I	X	F	I	S	Y
U	R	H	F	S	H	L	E	I	I	O	F	T	Z	A	A	D
S	I	C	F	K	X	T	D	R	V	H	A	P	U	T	Y	Y

			4	6	7		2		
4					3		8	7	
					2	5			
3	8				6				
	2	5	7		9	6		4	
			3						
	4							7	
	5	8						4	

Haritza, pinua, zedro, sagarrondo, aia, pagoa, gaztainondo

**IRUNABAR**  
IRUNGEO BERTSOAREN BILGUNA



## Jokua

**Doinua: Amodioa Gauza tristeia**  
**Egilea: Igauri Lopetegi Amostegi**

1)

Gazte guztion arazo batez  
Eman nahiko nuke parte  
Droga berriro gure herrian  
Sartzen dabilta Jo ta ke  
Ludopatian arazoak gu  
Ezkaitu uzten aparte  
Sistema bera berriz pozik ta  
Gizartean zenbat kalte  
Eta horrela jarraituko du  
Guk zeozer egin arte

2)

'Joka ezazu' mezua dabil  
Inguruan egunero  
Karteletako idoloekin  
Dantzan hamaika numero  
Gu Nahi gaituzte sistema hontan  
Sistema beran bezero  
Nahiz tentagarri izan daiteken  
Txanpon bat sartzea gero  
Guk apostua galduko dugu  
Behin apostatu ezkerro

3)

Zenbat arazo konpondu nahian  
Gabiltzan gu gure kasa  
Eta driua dohan lortzea  
Ezta laguntza eskasa  
Apostu egin, dirua lortu  
Ta gainera ongi pasa  
Mezuok gu ez konbentzitzea  
Ez dela ez lan erraza  
Dirua sartu baino lehenago  
Hasten delako jolasa

4)

Diru guztia xahutu ohi da  
Txanpon zuloatik barrena  
Jokarariak beti galtzaile  
Bai lehena ta azkena  
Apostuekin orduan nor da  
Garaile irteten dena?  
Beti bezela irabazleak  
Burgesia du izena  
Jokazaleekin jokatzeko duna  
da jokarari onena

5)

Alienazio ta lapurreta  
Burgesentzako debalde  
Ta egoera zeinen latza den  
Onartu behar halare  
Jokoarena ezin konpondu  
Joko hau aldatu gabe  
Sistema irauli, izan gaitzezen  
Gure bizitzaren jabe  
Denok apostu egin dezagun  
Gure bizitzaren alde

## San Vicente de Paul LH6

**Kaixo Ama:**

Gagoratzen duzu nola esan zenidan ezin nituela txakurrak etxera ekarri, bestela txakurra etxean geratu baina ni kanpora joango nintzela?

Ba, duela bi urte nire txakur bat ezkutatuta izan nuen logelako balkoian, horregatik ez nizuen uzten nire logelara sartzen. Ondo zainduta neukan, eta Lurren janaria lapurtzen nuen, amonaren txakurrarena, berari emateko. Gau deitzen zen. Egunero kanpora eramaten nuen eta egunero galtzen zuen ilea garbitzen nuen. Astero, zuek ez ikusteko ezkutuan garbitzen nuen. (Xaboa ere ezkutatua nuen)

Batzuetan, amona Gauz arduratzen zen. Gau oso txintxo zen baina baita oso-oso zaharra ere. Gauetan oso txintxo egoten zen. Egun batean ia-ia aurkitu zenuten, zuen logelan utzi nuelako. Gero berriz ere nire logelan jarri nuen. Ondoren, zuen logelan kolonia bota eta kitto. Zoritxarrez, denbora gutxira hil egin zen.

Hala ere orain pozik nago, nirekin eduki nuen garaian asko gozatu genuelako elkarrekin.

**Agur Ama.**

**Nahia.**

**SAN VICENTE DE PAUL IKASTETXEA (LH 6.A)**



Ana Lupe Iridoy, artista:

## “Erakusketa hauek bertako gazteek egiten ditugun lanak erakusteko aukera bat direla uste dut”



Ana Lupe Iridoy Hondarribian jaio zen 1991 urtean eta Ana Luna ize-nordeaz sinatzen ditu bere obrak. Apirilaren 14ra arte bisitatu ahalko da Irungo Martindozenea Gaztelekuan “Emakume esanguratsuak” erakusketa. Bilduman munduko hainbat lekutako emakume aktibisten ilustrazio-erretratuak ikus daitezke arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara asteartetik ostegunera eta ostiral eta larunbatetan 17:00etatik 21:00etara.

### Nola bururatu zitzaizun historiako emakume esanguratsuen inguruko erakusketa egiteko ideia?

Duela bi urteko udaran ikerketa asmoekin egindako marrazkiak dira. Munduko emakume esanguratsuen inguruan nik neuk gehiago jakiteko. Proiektu pertsonal hau garatzen nuen bitartean arlo ezberdinetako emakume horien inguruko informazio gehiago bilatzeko aprobetxatu nuen.

### Nola topatu zenuen gaztelekuan erakusketa egiteko aukera?

Gaztelekuko langile bat ezagutzen dut eta beraiek jarri ziren kontaktuan nirekin. Asmoa erakusketa aurreko urtean egitea zen, baina, kanpora nindoanez, atzeratu egin genuen.

### Zein lotura duzu zuk artearen munduarekin?

Amak ematen zituen pintura klaseetara joan naiz txikitatik. Gero, institutuan ere artearekin loturiko ikasketak egin nituen bere garaian.

### Zer ikasi duzu proiektu honen bitartez?

Marraski kopuru handiagoa nuen eta erakusketa bat prestatzeko obrak aukeratzen ikasi dut. Izan ere, nire lehen erakusketa izan da eta obran bilduma osatu bat erakusten saiatu naiz. Gainera, erakusketa nola muntatzen den ikasi dut eta gaztelekuko langileen laguntza asko izan dut.

### Zernolako sentsazioak izan dituzu zure lehen erakusketa izanda?

Ona, oso aberasgarria izan da nire proiektu pertsonala jendeari erakusteko aukera izatea.

### Landutako emakume guztien artean, zein nabarmenduko zenuke zuk?

Erakusketaren egunean Lolita Chavez nabarmendu nuen, Euskal Herrian errefuxiatu bezala bizi izan zen Guatemalako emakume indigena bat eta nik pertsonalki ezagutzeko aukera izan nuena. Landutako emakume guztien artean niri gehien iritsi zaidana izan da.

## “Oso aberasgarria izan da nire proiektu pertsonala jendeari erakusteko aukera”

## “Nire proiektuak garatzen jarraitzea gustatuko litzaidake”

### Zein teknika erabili duzu erakusketa obrak sortzeko?

Marraski guztiak era digitalean eginak izan dira, marrazkiak egin nituen garaian bidai batzuk egitea pentsatua neukalako eta ordenagailuarekin mugitzeko erarik errazena zelako.

### Zein balorazio jaso duzu erakusketa bisitatu duten pertsonen partetik?

Balorazio positiboa jaso dut. Gainera, hurbildutako lagunaren iritziak jaso ditut eta gustura nago. Erakusketa hauek bertako gazteek egiten ditugun lanak erakusteko aukera bat direla uste dut.

### Zer egin zenuten Gaztelekuko gazteekin egindako tailerrean?

Marraski digitalak egiteko material nahi-

korik ez genuenez, proiektorearen bitartez Euskal Herriko emakume rapera feministen irudiak paretan islatu genituen. Ostean, lerro nagusien kalko moduko bat egin eta irudiak zuri beltzean bete genituen. Bukaeran gaztelekuko kanpoaldean marrazkiak ikusgai jarri genituen.

### Artista bezala, zein beste proiektu daukazu buruan?

Proiektu digitalez gain, artisau-teknikak lantzea gustatzen zait ere. Debako eskolan linografia ikastaroa egin nuen eta orain serigrafia ikasteko asmoa dut. Nire proiektuak garatzen jarraitzea gustatuko litzaidake, artearekiko dudaren perspektiba pertsonala zabaltzeko.



- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: [igazte@irun.org](mailto:igazte@irun.org)
- Web gunean: [www.irun.org/igazte](http://www.irun.org/igazte)
- WhatsApp bidez: 607 771 173

## "Gipuzkoan Gazte Tour" programaren itzulera

**Eguna:** Apirilak 13

**Ordutegia:** 17:30etatik aurrera.

**Tokia:** Ficoban.

**Adina:** 12 eta 25 urte arteko gazteentzat.

**Sarreraren prezioa:** 3 euro.

Artistak: Oihan Vega, Txurru, Miren Arrieta, Ainhoa Larrañaga, Iban Garcia eta Marloon taldeko kideak.

## 2019ko Auzo-landegietan izena emateko aukera

**Aurreinskripzioa:** Apiriaren 16an goizeko 9:00etan ireki eta apirilaren 24an, 24:00etan itxiko da formularioa.

**Formularioan bete beharreko datuak:** Eskatzailearen NANA, izen-abizenak, helbidea, telefona eta posta elektronikoa.

Ez da galdetuko nora joan nahi duen eskatzaileak.

Pertsona bakoitzak izenemate bat baino ezin izango du egin. Formularioa bete ondoren, zozketan parte hartzeko zenbaki bat jasoko du erabiltzaileak; zozketan parte hartzeko beharrezkoa da zenbaki hau.

Aniztasun funtzionala duten pertsonen izena emateko beste epe eta prozedura

bat izango dute.

Internetera sarbidea behar izanez gero, KZgunea zentroak erabil ditzakezu.

## Zure idieiarekin jarraitu!

**Epea:** 2018ko apirilaren 8an.  
**Kultur sormena bultzatzeko diru laguntzak:**

- > Antzerki testuak
- > Zinema gidioak
- > Dantza koreografiak
- > Literatura testuak euskaraz
- > Musika konposizioak
- > Ilustrazioak

**Beste modalitate batzuk:** musika, antzerkia, dantza, arte plastikoak, liburuak, ikusentzunezkoak, sormen lantegiak, kultura eta irudi sorkuntza...

## Adikzioak eta... Prebentzioa!

**Irungo Udalaren adikzioen prebentziorako webgunean aurkituko duzu:**

- Legezko eta legez kanpoko drogei buruzko informazioa: cannabisa, speeda, kokaina, MDMA (estasia), GHB, ketamina, mongiak, heroina...

- Adikzio berriak: ziberadikzioak, Internetetikiko mendekotasuna, online joketikiko mendekotasuna, mugikorrarekiko mendekotasuna, sare sozialekiko mendekotasuna...

- Alkohola, tabakoa edo beste drogaren bat kontsumitu den detektatzeko testa...

- Drogak kontsumitzearen arriskuak eza-gutzeko jolas eta galdetegiak...

**Eta askoz ere esteka interesgarri gehiago!!!!**

## Itzuli etxera Gazteen Itzulerarako Laguntza programarekin

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) lantokiek gazteak kontrata ditzaten Eusko Jaurlaritzak Gazteen Itzulerarako Laguntzen deialdia onartu du. Programa aitzindari honek kalitatezko lana sustatzen du, gutxienez 12 hilabetez beste autonomia erkidego batetan edo atzerrian bizi diren 35 urtetik beherako gazteak Euskadira itzul daitezten. #GazteenItzulera

### Baldintzak:

- EAEn jaio izana.
- Ikasketak aurrez aurre EAEn egin izana eta bertan titulazio ofizialen bat eskuratu izana.
- EAEn administrazio-egoitza egiaztatzea, kanpora irten aurretik, behintzat bi urtez.

### Formakuntza eta lan-esperientzia:

- Unibertsitate-titulazioa.
- Unibertsitateaz kanpoko titulazioa: Profesionaltasun-egiaztatzea, Oinarrizko LH, Erdi Mailakoa Heziketa Zikloa (LHI) edo Goi Mailako Heziketa Zikloa (LHII).
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH).
- Ikasketarik gabea.

**Izen-ematea:** Lanbideren webgunean.

**Zer egin behar dut kontratua sinatu aurretik?** Nahitaezkoa da kontratua sinatzeko orduan langabezian egotea. Horretarako Lanbiden, Enplegu Zerbitzu Publikoan lan eskatzaile moduan izena eman behar duzu. Lan-kontratua zehaztu baino lehen egin ahalko duzu.

**Eta behin lanean hasi eta gero?** Lan-kontratu berria hasi eta lehen 30 egunen barruan EAE-ko udalerriren batetan erroldatu beharko zara; hala mantendu beharko duzu, behintzat diruz lagundutako kontratuak iraun bitartean. Kontratatu mugagabeen kasuan gutxienez 20 hilabete.

**Lanbide harremana:** retornojuvenil@lanbide.eus posta elektronikoko bitartez, edo telefono hauetara deituz: 945 18 13 35 - 945 18 13 09

**Partekatu urrutit daudenekin: Itzul gaitzen etxera!**

**Folder**

Paper-dendarik merkeena  
**ZIURTATUTA**

Kolon ibilbidea, 2  
(atzeko aldea)  
[www.koalart.net](http://www.koalart.net)  
[koalart@koalart.net](mailto:koalart@koalart.net)  
943 63 93 01

# Apirilak

6

## IV. Greziar Jardunaldiak

**Zer:** Greziar antzerkiaren inguruko jardunaldietan parte hartzeko aukera.

**Non:** Oiasso Erromatar Museoa.

**Ordutegia:**  
-11:00etatik 13:00etara: Haurrentzako antzerki grekoari buruzko tailerra.  
-18:00etan: "Los teatros grecorromanos" hitzaldia.  
-20:00etan: "Hipolito" lanaren antzezpena.

**Prezioa:** Haurrentzako jarduera 2 euro eta arratsaldekoak 4 euro

**Izen-ematea:**

943639353 telefonora deituz edo actividades.oiasso@irun.org emailera idatziz..

7

## Harian: Eñaut Elorrietaren kontzertua

**Zer:** Harian proiektuaren barnean Eñaut Elorrietaren kontzertua.

**Non:** Amaia Kultur Zentroan.  
**Ordua:** 19:00etan.

**Sarrera orokorra:** 7,55 euro.

**Sarreraren salmenta:** Internet bidez, Irungo Turismo bulegoan eta Amaia Kultur Zentroko leihatiletan.

8

## 21. Korrika Irunen

**Zer:** 21. Korrika Irungo kaleak zeharkatuko ditu.

**Ibilbidea:** Hendaiatik igaro ostean Irundik igaroko da Korrika.

**Ordua:** Gaueko 00:42etan.

**Leloa:** Klika.

**Data:** 2019ko apirilaren 4tik 14era.

**Aurtengo omendua:** Txillardegi.

**Antolatzailea:** AEK.



### Denborapasen emaitzak

E	K	U	E	A	S	L	H	V	F	D	C	P	V	Y	W	U	
D	A	H	W	Q	T	C	F	K	I	F	A	J	A	N	K	B	
N	H	Z	W	Y	G	O	G	I	L	E	K	C	E	G	M	T	
U	A	Q	T	M	E	W	H	E	F	N	A	D	E	A	O	J	
V	W	A	S	A	A	O	J	O	G	Q	M	J	U	E	W	A	
A	S	P	N	A	I	R	U	F	Y	L	E	E	D	R	Q	W	
F	G	Q	F	U	R	N	O	E	E	Y	F	J	E	X	E	U	
K	R	E	A	A	D	I	O	J	H	A	R	I	T	Z	A	C	
T	M	G	M	U	Q	Y	T	N	O	A	A	R	K	N	G	E	
K	Q	I	O	V	W	B	O	A	D	I	Q	K	K	A	I	Q	
B	W	S	Z	F	Z	D	U	M	A	Q	R	V	E	N	M	M	
W	L	G	Z	O	T	T	Y	D	E	O	O	Y	F	K	P		
S	A	G	A	R	R	O	N	D	O	P	T	I	N	U	A	C	W
W	I	N	L	N	O	Y	E	I	N	D	L	U	A	H	M	L	
Q	N	E	M	Y	P	A	A	S	E	K	I	X	F	I	S	Y	
U	R	H	F	S	H	L	E	I	I	O	F	T	Z	A	A	D	
S	I	C	F	K	X	T	D	R	V	H	A	P	U	T	Y		

8	3	1	4	6	7	9	2	5
5	7	2	8	1	6	4	6	3
4	9	6	2	5	3	1	8	7
7	6	4	1	3	2	5	9	8
3	8	9	5	4	6	7	1	2
1	2	5	7	8	9	6	3	4
9	1	7	3	2	4	8	5	6
0	4	3	0	9	5	2	7	1
2	5	8	0	7	1	3	4	9

12

## Dokuirun: "Hondar 2050"

**Zer:** Cesare Magiloniren "Hondar 2050" dokumentala Dokuirun dokumental zikloaren barnean.

**Non:** Amaia Kultur Zentroan.

**Ordua:** 20:00etan.

**Prezioa:** Doako sarrera gonbidapenarekin. Gonbidapenak: Irungo Turismo bulegoan eta Amaia Kultur Zentroko leihatiletan.

13

## Antzerkia: "Zoaz pake Santuan"

**Zer:** Begoña Bilbaok zuzenduriko antzerkia, Mikel Laskurain eta Ane Gabarain antzezleen lanarekin.

**Non:** Amaia Kultur Zentroan.

**Ordua:** 20:00etan.

**Sarrera:** Sarrera orokorra 14,60 euro. Langa-beek, 14 urte beherakoek eta Gazte Txarleta dutenek 9,40 euro.

**Sarreraren salmenta:** Internet bidez, Irungo Turismo bulegoan eta Amaia Kultur Zentroko leihatilan.

14

## Ganbera Zikloa Ricardo Requejo

**Zer:** Eneko Amundarainen zuzendaritzapean Ametsa Abesbatzaren emanaldia.

**Non:** Amaia Kultur Zentroan.

**Ordua:** 19:00etan.

**Sarrera:** 4,30 euro.

**Sarreraren salmenta:** Internet bidez, Irungo Turismo bulegoan edo Amaia Kultur Zentroko leihatiletan.



# MOLDATU HOME

I N M O B I L I A R I A  
H O M E S T A G I N G




## MOLDATU HOME: ZURE ETXEBIZITZA SALTZEKO MODU BERRIA

**Etxe bakoitza desberdina da, kontatu iezaguzu nolakoa den zuria!**

Higiezin zerbitzuen kontzeptu berri bat aurkezten dizuegu, etxebizitzaren atontzean oinarrituta dagoena etxearen aurkezpen hobereana egiteko.

BIZILEKUAK saldu nahi ditugu, ez soilik metro karratuak.

Inmobiliaria Urtzi Goigana eta Encarni Martinez Home Staging enpresak elkartu gara, gure errekurtsoak, esperientziak eta gehien bat, gauzak ondo egiteko gogoia uztertuz, etxebizitzaren salmenta / alokairua zerbitzu integrala eskaintzeko Home Staging teknikekin. Etxebizitzak saltzeko modu eraginkorrago batekin, eroslearen aza-lean jartzen garelako.

 **661875785**  
(Urtzi)

 **656748202**  
(Encarni)

Irungo kasinoaren atzeko iturrian aurki gaitzakezu,  
Jose Ramon Agirretxe Alkate Jauna 1 plazan.

<https://www.inmobiliariaurtzigoigana.com/>

<https://encarnimartinez.es/>